

## LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA

2014/2015 ikasturtea

### SORMENA ETA ADIMEN EMOZIONALA HEZKUNTZAN

Egilea: Nekane Landeta Olea

Zuzendaria: Cristina Arriaga Sanz

Leioan, 2015eko Ekainaren 4an



## AURKIBIDEA

Sarrera	4
1. Esparru teorikoa	5
1.1. Sormena	5
1.2. Sormena eta adimen emozionala	9
1.3. Nola landu sormena eta adimen emozionala eskolan	12
2. Metodologia	15
3. Lanaren garapena eta emaitzak	18
3.1. Espazio pertsonala, indibidualtasuna eta autonomia	18
3.2. Ikerkuntza, azterketa eta esplorazioaren garrantzia	20
3.3. Adierazpenerako lekua	20
3.4. Irakaslearen papera	21
4. Ondorioak	22
4.1. Sormena eta adimen emozionalak duen garrantziaz kontzientzia hartzea	22
4.2. Gure zaletasunei lekua uztearen garrantzia	23
5. Erreferentzia bibliografikoak	24

## ERANSKINAK

1. eranskina. Elkarrizketako galderak
2. eranskina. Elkarrizketak
3. eranskina. Hezkuntza Sortzaileari buruzko informazioa

## SORMENA ETA ADIMEN EMOZIONALA HEZKUNTZAN

Nekane Landeta Olea

UPV/EHU

### Abstract-a

Azken hamarkadetan egon diren aldaketak direla eta, gaur egungo gizarteak, pertsona sortzaileak eskatzen ditu, beraz, oraingo erronkei erantzuten dien hezkuntza baten beharrea gaude. Honetarako, pertsonen interes eta trebetasunetatik abiatzen den hezkuntza behar dugu, sormenari eta adimen emozionalari lekua uzten dion hezkuntza, hain zuzen ere. Hau lortzeko, lehenik eta behin gure inguruko zentroen egoera aztertu eta beste motatako esparruetara jo da, hauen ezaugarriak, zailtasunak eta aukerak ezagutzeko asmoz. Aipatutako bi gaitasun hauek pertsonengan duten garrantzia ikusita eta zenbait lekutan nola lantzen dituzten aztertu ostean, emaitzak jasoko dira gure inguruko zentroetan, sormena eta adimen emozionala bultzatzen duen metodologia baten ezaugarriak eskeintzeko. Aipatuko diren, jarduera motak eta irakasleen papera Hezkuntza Sortzailea oinarritzat izango dute, pertsona guztien berezitasunak, interesak eta trebetasunak kontuan hartzen dituen hezkuntza izanik.

*Sormena, Adimen Emozionala, Hezkuntza Sortzailea, Adimen Anitzak, Irakasleen rola*

Debido a los cambios de las últimas décadas, nuestra sociedad reclama personas creativas. Necesitamos un nuevo sistema que responda a los retos creados en estos tiempos. Para esto, es necesaria una educación que parta de los intereses y capacidades de las personas, concretamente, una educación en la que la creatividad y la inteligencia emocional tengan cabida. Con el fin de conocer las características, dificultades y oportunidades de nuestro entorno, se ha acudido a centros y otros ámbitos educativos. Vista la importancia de estos dos conceptos en las personas y después de conocer como se trabajan en distintos campos, se presentarán unas características de una metodología partiendo de los datos obtenidos. Estas características se basarán en la Educación Creadora, proponiendo distintos tipos de ejercicios y el rol que debería desempeñar el docente, ya que este modelo de educación tiene en cuenta las diferencias, intereses y capacidades de los alumnos.

*Creatividad, Inteligencia Emocional, Educación Creadora, Inteligencias Múltiples, Rol docente*

Nowadays, our society needs creative people. The current educational system was created to satisfy necessities of another time, that's why we need a new one who can respond to the new challenges. To achieve this, we need an education that has in mind the interest and the abilities of the children, in particular an education that believes in creativity and emotional intelligence. Some schools were visited, in order to get to know more about the actual situation in our academic centres and other fields. After all the information was analyzed, a proposal was suggested containing different ways or methods to work with and also how teachers should behave. This suggestion will be based in the Creative Education, which keeps in mind the differences, interests and abilities of the students.

*Creativity, Emotional Intelligence, Creative Education, Multiple Intelligences, Teachers role*

## Sarrera

*“Sometimes, the most brilliant and intelligent minds do not shine in standardized test because they do not have standardized minds.”*

*Diane Ravitch*

Aipamen honetan nabarmentzen den moduan, hezkuntzan erabiltzen diren ariketa, azterketak, irakasteko moduak... ez dira ikasle guztiei egokitzen, guztiok ez garelako berdinak eta ez dugulako berdin ikasten. Hezkuntza estandarizatu honetan, gauzak modu ezberdinean egiten dituenari alde batera uzten zaio. Beharrezkoa da ikasle guztiei erantzun bat ematea eta guztiontzako egokia den hezkuntza ahalbidetzea.

Hurrengo lan honetan, ikasteko forma ezberdinak kontuan hartzen duten leku batzuk aztertuko dira, sormena eta adimen emozionalean oinarritutako hezkuntza baten bidez.

Sormenaz hitz egitean, originaltasuna, imajinazioa, artea, etab. etortzen zaizkigu burura, baina jakin badakigu, sormena kontzeptu horietatik harago doala. Pertsona ororen hezkuntza eta hazkuntza prozesuetako parte garrantzitsua betetzen du, nahiz eta kasu gehienetan honetan ez erreparatu. Bai modu kontzientean, zein inkontzientean, guztiok sormena garatu dugu gure bizitzan zehar momentu ezberdinetan eta helburu desberdinekin. Are gehiago, garatzen eta etengabe erabiltzen jarraitzen dugu denbora pasatu ahala.

Eta zergatik gertatzen da hori? Gizakiok berez, gaitasun hau daukagulako eta aukera ematen digulako edozein motatako edukiak sortzeko, gure egunerokotasunean aurkitzen ditugun arazoan konponketarako eta egoera berriei aurre egiteko.

Baina aurrerago aipatu moduan, sormenaren barruan gauza gehiago sartzen dira. Orain arte adierazitako guztia, azalean ikusten ditugun gauzak besterik ez dira, baina sakonago arakatzen badugu honelako kontzeptuek gudan duten eragina ikusi dezakegu. Adimen emozionalez ari gara.

Zentzu honetan, sormena eta adimen emozionala eskutik doazela esan daiteke, bati esker bestea lantzen dugulako eta alderantziz. Adimen emozionala lantzean, gure barneko interesei, kezkei, beldurrei, trebetasune, etab. lekua uzten diegu, pertsona guztien garapen pertsonalaren oinarria izanik.

Zoritxarrez, hezkuntzan ez dute behar besteko lekurik izaten, kognitiboki hazteari ematen baitzaio garrantzia gehien, bakoitzaren berezitasunei arretarik jarri gabe. Hala ere, aditu askok frogatu duten moduan, adimen emozionala garatzea funtsezkoa da, honi esker garatzen baititugu beste adimenak behar diren moduan (Mauco, 1964). Sentimenduak, oinarritzakoak dira pertsona ororen formakuntzan eta beraz, hauetatik hasi beharko ginateke, intelektualki garatu ahal izateko.

Sormenak, honetan paper garrantzitsua betetzen duela esan dezakegu, izan ere, honen bidez lortzen dugulako barruan duguna adieraztea. Sortzen dugun guztia, bakoitzaren sentimenduetatik, bizipenetatik, pertsonalitatetik... abiatuta sortuko dugu, beraz gure adimen emozionalarekin lotura zuzena dauka. Gainera, besteek sortutakoa ere gudan eragiten du beti, nahiz eta bakoitzari modu ezberdinean eragin.

Hau dena kontuan izanda, esparru ezberdinetan bi gaitasun hauek zer nolako presentzia duten aztertu da, ikasteko forma ezberdinak kontuan hartzen duten leku batzuk ere aztertuz, sormena eta adimen emozionalean oinarritutako hezkuntza dela egiaztatzeko. Esparru hauetatik ateratakoa analizatu ostean, argi geratzen da benetan irakasleak honen garrantziaz kontziente direla eta saiakerak egiten dituztela ikasleei transmititzeko. Baina aldi berean, ez da behar den moduan lantzen eta bigarren plano batean gelditzen dira. Hezkuntzan dagoen hutsune honi erantzun bat emateko asmoarekin, emaitzetatik abiatuko gara, bi gaitasun hauek lantzen laguntzeko baldintza egokiak aurkeztuz, betiere, Hezkuntza Sortzailea oinarritzat hartuz. Modu honetan, sormena eta adimen emozionala lantzeko baldintzarik egokienak jasoko dira, ikasleen interesak abiapuntutzat hartuta, edozein eskoletan aplikatzeko asmoarekin.

Beraz, hau dena azaltzeko, lehenik eta behin gai honekin lotutako adituen teoriak aztertuko dira, horrela gaian ondo sakontzeko. Ondoren, aztertutako esparruen ezaugarriak aurkeztu azalduko eta zer nolako baliabideak erabili diren azterketa hori aurrera eraman ahal izateko. Bildutako datuak kontuan hartuta, sormena eta adimen emozionala bultzatzen duen metodologia baten ezaugarriak eskainiko dira. Amaitzeko, guzti honetatik ateratako ondorioak azalduko dira, baita etorkizunerako proposamenak ere.

## **1. Esparru teorikoa**

### **1.1. Sormena**

Zaila da sormenaren definizio zehatz bat topatzea. Aditu bakoitzak bere definizioa ematen du aspektu ezberdinetan arreta jarriz, beraz, esan daiteke, sormenaren definizioa, guztien

konbinaketa bat izango litzatekeela. Baina argi dago, berez gizaki guztiok daukagula, ezin dugulako “ez sortu”, etengabe sortzen gaude. Gizaki moduan ezin dugu gure bizitzan hasteko, hobetzeko eta eraikitzeke daukagun esentzia esploratzailea ukatu (Fuentes eta Torbay, 2004). Honen adibide bat jartzearren, Sir Ken Robinsonek (2012) aipatzen duen bezala, gizakiok daukagun imajinazio ahaltsua da Lurreko beste espeziengandik ezberdintzen gaituena. Imajinazio honi esker, gai gara gure iragana ikusteko eta gure etorkizuna aurreikusteko, gainera beste pertsona baten ikuspuntua onartzeko ere beharrezkoa da. Sormena orduan, imajinazioa martxan jartzea izango litzateke. Ideia baliagarriak sortzeko prozesua hain zuzen ere.

Ikusita imajinazioa sormenaren oinarri bat dela eta honekin batera datorrela, argi ikusten dugu, denok gure barnean daukagun zerbait dela, gure bizipenak eta etorkizunean bizi izango ditugunak sormen prozesu horretan parte-hartzen dutelarik. Modu horretan, ez da bakarrik gure kognizioa erabiltzen, baizik eta gure barne emozioak ere azaleratzen dira. Beraz, sormenak adimena, pertzepzioa, esperientzia eta emozioa jartzen ditu jokoan (López F. Cao, 2008).

Sormenaz hitz egitean, modu eta intentsitate ezberdinetan azaleratzen den gaitasun sortzaileaz ari gara: ideiak, inspirazioa, originaltasuna, intuizioa, imajinazioa, berrikuntza, asmamena, aurkikuntza, etab. Hauek guztiak eta askoz gehiagok, sormenaren parte dira eta beraz, hauetariko guztiek garrantzia berdina izango dute gaitasun hau garatzerako orduan (Borthwick, 1982).

Hari honetatik jarraituz eta sormenaren kontzeptua borobiltzeko, beharrezkoa da Isaksen-ek (2000) zehaztu zituen sormenaren lau “P”-etaz hitz egitea, hauek baitira sormen prozesuan parte-hartzen duten elementuak:

### 1. Pertsona (*Person*)

Honen barruan pertsona bakoitzak dituen ezaugarriak sartzen dira: izaera, jarrera, pentsatzeko modua...

### 2. Prozedura (*Process*)

Honek, egiten ditugun ekintza edo operazioei egiten die erreferentzia. Izan ere, prozesu sortzaileak hainbat fase dituelako: lehenengoan, prestakuntza egiten da, hau da, ideiak bilatzen dira. Bigarren fasean, inkontzienteki lan egiten dugu, inkubazio fasea deitzen dena. Honek esan nahi du, nahiz eta kontzienteki lan ez egin edo ideiak ez bilatu, gure buruak lanean jarraitzen duela. Eta azkenengo fasea, ideiaen aurkikuntza izango litzateke, iluminazio fasea.

### 3. Produktua (*Product*)

Produktua, lortutako emaitza izango litzateke, ukitu ahal dena edo ukiezina dena. Garrantzitsua da aipatzea, gizakion edozein ekintzak ematen digula emaitza sortzaile bat. Eta hauen ezaugarriak originaltasuna, nobedadea, erabilgarritasuna eta ideien integrazioa dira.

### 4. Giroa (*Press*)

Azkenik, ingurunea edo testuingurua daukagu, hau da, prozesu hau emateko betetzen diren baldintzak. Hemen, sormena oztopatzen edo laguntzen duten faktoreak daude.

Sormenaz hitz egitean ekidin ezina da, azken urteotan adimenaren barruan egin den sailkapena aipatzea. Aurrerago azalduko den moduan, Adimen Anitzen teoriaren barruan kokatu dezakegu kontzeptu hau, beste adimen mota baten moduan kontsideratuz. Izan ere, adimena eta sormena, eskutik doazela esan dezakegu (Robinson, 2009). Adimen sortzaile hau, izaeraren, informazioaren prozesamenduaren, balio pertsonalen eta kanpoko eragileen konbinaketa bat da. Pentsatzeko eran eta zerbait berritzailea edo ezberdina lortzeko gogoetan ezberdindu dezakegu beste adimen motetatik. Adimen mota hau berritzailea, ausarta, irekia, iraultzailea eta askea delarik (Rowe, 2004).

Hasieran aipatu bezala, guztiok gure barnean berez daukagun zerbait da, baina pertsona bakoitzak modu ezberdinean azaleratzen duena. Adimen sortzaileak, oroitzapenen eta adimen kode subkontzienteen erabilera egiten du, antzematen duena modu batean edo bestean interpretatzeko. Bestetik, sormenaren oinarria imajinazioa dela jakinda, aipatzekoa da, honi esker, egoera baten aurrean posibilitate ezberdinak planteatzeko daukagun kapazitatea; ideia berriak garatzeko ere lagungarria delako. Gainera, sormenean pertsonalitatearen ezaugarriek ere eragina dute, jarrerak gidatzen dituenak eta bakoitzaren sineskerak eta bizipenak islatuta uzten dituenak. Azkenik, hezkuntzari erreferentzia eginez, esan beharra dago kontzeptu hau ez dela arlo batean espresuki lantzeko, sormena ez delako historia, geografia, marrazketa... bezalako materia bat, baizik eta gizakion garapena ahalbidetzen duen dimentsio zabala da, honen barnean aspektu guztiz desberdinak sartzen direlarik (Borthwick, 1982: 15). Horregatik, prozesu kognitiboak, afektiboak, neurologikoak, sozialak... bere baitan hartzen dituen gaitasun hau, diziplina ezberdinetatik (psikologia, antropologia, soziologia, etab.) ikertu den kontzeptu konplexua da, ezin delako sormena ikuspuntu batetik bakarrik landu (Dabdoub, 2004).

### 1.1.1. Sormena hezkuntzan

Gaur egungo hezkuntza sistema, XVIII. eta XIX. mendeetan sortu zen, garai hartako interes ekonomikoei erantzuteko. Ekonomia industrial horretan, funtsezkoak ziren matematika-, zientzia- eta hizkuntza-gaitasuna garatuak izatea, eta honen ondorioz, adimenaren eta gaitasun pertsonalaren ikuspegia oso mugatua zen. Modu honetan ikasteko kapazak ez ziren ikasleak alde batera uzten ziren, oso finkatuta baitzeuden irakasteko eta ikasteko moduak (Robinson, 2009).

Borthwick-en (1982) esanetan, aipatutako hezkuntza tradizional hau, ez da ikasleen trebetasunei egokitzen. Hezkuntza mota honen oinarriak edukiak ulertzea, asimilatzea eta aplikatzea dira. Honekin batera, irakasle-ikasle arteko harremanean arreta jartzen badugu, irakasleak zeukan rol autoritarioa aipatu beharra dago, hau da, ikasleen gaineratik zegoen eta ikasleen artean parte-hartzea ez zen aktiboa.

1950. urtean, Guilford (1983) psikologo amerikarrak Estatu Batuetako hezkuntza sistemaren krisiaren aurrean, aldaketa baten beharra zegoela azpimarratu zuen. Guilford-ek bere garaian eta Robinson-ek (2009) gaur egun esaten duten moduan, hezkuntza sistemak ez ditu ikasleak prestatzen lan-merkatuko erronka berriei aurre egiteko. Hau ikusita, ikasleen adimen sortzailea kontuan hartzen duen hezkuntza sistema baten beharra dago. Gainera kontuan izan behar dugu, aurrerago aipatutako hezkuntza sistema, beste garai desberdin baterako diseinatu zela, eta gaur egungo gizartera egokitu beharko litzatekeela. Hau izan zen hezkuntza sortzailea bultzatu zuen arrazoi nagusienetariko bat, ikasleen adimen sortzailea kontuan hartzen duen hezkuntza sistema bat.

Pixkanaka-pixkanaka, egoera hau aldatuz doala ikusi da eta ikaslea hezkuntzaren protagonista izatera pasatu da, honen arreta guztia bereganatuz. Nahiz eta oraindik asko dagoen egiteke, argi dago, ikasleek arinago ikasten dutela errealitatearekin harremanetan daudenean, ezagutzen dituzten ereduak erreproduzitzen eta haien sormena garatuz. Baina lehenengo, ikasleak motibatzeke beharra dago. Eta ikasleen ingurune hurbilean eta bizipenetan oinarritutako hezkuntza, motibazio iturri izan daiteke (Borthwick, 1982).

Honelako ezaugarriak garatzea, proiektuen egitean eta gatazken konponketan originaltasunez eta modu berritzaile batean aritzeko lagungarriak dira. Hezkuntzan, normalean sormena, izaera kritikoa eta problema baten inguruan hainbat ikuspuntu bilatzearen bitartez lantzen da, hezkuntza eredu konformista eta errepikakorra alde batera utziz (Canda, 2000).



Zoritxarrez, askotan ez da pertsonen talentu hau aprobetxatzen edo ez zaio behar beste garrantzia ematen. Denok gara, bakoitzaren ahalmenetara moldatutako helburuak lortzeko gai, betiere gure inguruneak hau ahalbidetzen badu. Beraz, hezkuntza testuinguruak honetan esperimentatzen edo “aurkikuntzak egiten” bultzatzen badu, adimen hau garatzen lagundu dezake (Rowe, 2004).

Gainera, gizaki sortzaileak hezteak hainbat onura ekartzen dituela frogatu da. Euren ahalmenen jabe diren pertsonak, originalak, aldaketei erraztasunez egokitzen direnak, testuinguru sozialaren parte direnak eta bai bakoitzarentzako zein munduarentzako pertsona aberasgarriak lortzera eramaten duen hezkuntza ereduak izango litzatekeelako (Borthwick, 1982).

## **1.2. Sormena eta adimen emozionala**

### **1.2.1. Adimen emozionala**

XX. mendearen hasieran, Alfred Binet psikologoak test bat sortu zuen ikasketetan, edozein pertsona izan ahal zuen arrakasta neurtzeko. Test hau, gaur egun hain ezaguna den Koefiziente Intelektuala neurtzeko sortu zuen eta denborarekin, bere aurkikuntza *Adimen test* moduan zabaldu zen. Mundu osoan arrakasta handia izan zuen eta beste psikologo batzuk (Arthur Jensen, Hans Eysenck, etab.), ideia honetatik abiatu ziren adimena neurtzeko tresna bat sortzeko asmoz. Garai hartako adimenaren esanahia agerian uzten da, adimena hitzezko eta matematikako arrazonomendutik ikusita definitzen baitzen. Robinsonek argi esaten duen moduan: “así es como terminamos creyendo que las formas racionalistas de pensamiento eran superiores a los sentimientos y a la emoción, y que las ideas que en realidad cuentan son las que pueden comunicarse con palabras o mediante expresiones matemáticas” (Robinson, 2009: 64). Hemen aipatzen dena, gaur egun esparru gehienetan uste da eta hezkuntzan ere argi islatuta gelditzen da. Baina urteak pasa ahala honen ziurtasuna kolokan jarri da adimenari buruzko teoria berriak agertzen doazen heinean.

Kasu honetan, H. Gardnerrek beste aditu batzuekin, proposatutako Adimen Anitzen Teorian jarriko dugu arreta. Teoria honi esker adimenaren definizioa edo zentzua erabat zabaldu zen. Honen arabera, denok ditugun hainbat adimen mota daude eta pertsonaren arabera batzuetan besteetan baino trebetasun gehiago dugu edo gehiago nabarmentzen dugu, baina guztiak ditugu (Gardner, 1995). Horrela frogatu zen ikasketetan emaitza bikainak lortzea ez zela nahikoa, baizik eta konpetentzia emozionalen garapena gizabanakoen arrakastaren %80 izan zitekeela. Izan ere, badago gaitasun intelektual handia izan arren beste alderdi batzuetan gaitasunik ez duen jenderik.

Modu honetan, nota baxuak ateratzeak ez du esan nahi ez zarela ezertan trebea. Azken finean, gaur egungo hezkuntza sisteman adimen logiko-matematikoa eta linguistikoa baino ez delako balioztatzen, beste adimenak alde batera utziz (Altuna eta Arretxe, 2008; Robinson, 2009). Honengatik, hezkuntza sistema honek ezagutza forma ezberdinen presentzia gutxiagotzen du eta ikasle askok egiten dituzten ahaleginekiko errekonozimendua izaten uzten dute eta beraz, klaseko ekintzetan parte-hartzeko interesa gutxiagotzen da (Giráldez, 2009).

Gardnerrek (1995) zazpi adimen mota zehazten ditu: adimen linguistikoa, logiko-matematikoa, espaziala, musikala, korporala eta zinetikoa, eta emozionala (intrapertsonala eta interpertsonala). Geroago, adimen naturalista eta existentziala gehitu zituen. Hemen azpimarratzen dena, eskolak adimen hauek garatzen lagundu behar dituela da, pertsonaren arabera eta hauen garapenean beste aspektu batzuk ulertuz eta integratuz: hala nola, pertsonalitatea, emozioak eta ezberdintasun kulturalak. Orokorrean, bere proposamenaren helburua haurren gaitasunen garapen integrala eta armonikoa bilatzen du.

Robinsonek (2009) aipatzen duen moduan, sormena, adimen ugaritasun honen adibide bat izan daiteke. Izan ere, modu askotan izan gaitzke sortzaileak esparru guztiz ezberdinetan. Adimenarekin berdina gertatzen da. Adimenaren eta sormenaren artean, lotura garrantzitsua dago, hauen konbinaketarekin gure *Elementua*<sup>1</sup> aurkitzeko gai garelako.

Kontzeptu hau, aipatutako adimenetatik, adimen emozionalarekin lotu dezakegu. Adimen emozionala, adimen intrapertsonal eta interpertsonalez osatuta dagoela esan daiteke. Beraz, Bisquerrak ematen dion definizioaren arabera “es la habilidad para tomar conciencia de las propias emociones y de las demás personas y la capacidad de regularlas” (Bisquerra, 2014: 29).

Adimen honi esker, gai gara bizitzan aurkitzen ditugun oztopo edo egoera zailei aurre egiteko eta besteekiko harreman egokiak mantentzeko. Beraz, guztion garapen pertsonalean funtsezko papera betetzen duen adimena da. Gainera, aipatutako Robinson-en *Elementua*-n ere islatu egiten da, izan ere gure interes eta beharrekin lotuta dagoelako. Ez hori bakarrik, gure *Elementua* aurkitzean bakoitzaren motibazioa eta jarrera aldatu egiten da, eta honen ondorioz, besteekiko harremana ere hobetu egiten da, adimen emozionalean eraginez.

---

<sup>1</sup> *Elementua*, Robinsonek (2009) sortutako kontzeptu bati egiten dio erreferentzia. Benetan gustoko daukagun zerbait aurkitzen dugunean eta horretan trebeak garenean, gure *Elementuan* gaudela esan nahi du.

### 1.2.2. Adimen emozionala eta sormena

Aurreko atalean azaldutakoarekin jarraituz, adimen emozionalaren eta sormenaren artean, elkarrekiko lotura nabaria dago. Esan bezala, sormenaren oinarrietako bat imajinazioa da. Imajinazioan, sentimenduak eragiten dute, eta alderantziz, honek ere eragina dauka sentimenduetan. Beraz, sortzen ditugun gauza guztiak elementu afektiboak dituzte atzetik. Honek esan nahi du, eraikitzen ditugun fantasia guztiak gure sentimenduetan eragiten dutela, nahiz eta fantasia horiek errealitatearekin bat ez egin, sortzen dituen sentimenduak guztiz errealak dira (Vigorskii, 1990: 23).

Hemendik ondorioztatu daiteke, gizakiek sortzen dituzten gauza guztiak sentimendu eta pentsamendutik datozela. Edozer gauza sortzeko beharrezkoak baitira bi faktore hauek, hau da, faktore emozionala eta intelektuala. Sormena, autoadierazpenaren sinonimo bat dela esan daitekeelako. Sentimenduek, honetan eragina dute; norberak bere buruarekiko konfiantza eta errespetua badauka, aske sentituko da nahi den moduan aurkezteko eta adierazteko (Iglesias, 1999). Eta oraingoan ere, bakoitzak adierazteko modu ezberdinak aurkeztu ditzake.

Ildo honetan, Malaguzzi-k (2005) dioen moduan, pertsona guztiek, umeez bereziki, lengoaia ugari erabiltzen dituzte haien adierazpenerako. Umeez 100 lengoaia ezberdin dituztela adierazten du (mugimendua, marrazketa, pintura, eraikitzea, soinuak, musika, gorputz adierazpena, dantza, etab.). Hauek denak, eskoletan leku bat izan beharko lukete eta guztien artean loturak egin, elkarren ezagutza aberastuz. Honekin lotuta, Vigorskii psikologoak hurrengo hau esaten digu:

La concentración de las fuerzas creadoras del niño en el dibujo no es casual, sino que se debe a que es precisamente el dibujo lo que permite al niño de esa edad expresar más fácilmente sus inquietudes. La expresión escrita de las ideas y los sentimientos por los escolares va muy por detrás de su capacidad de expresarlo oralmente sin que sea fácil expresarlo.

(Vigorskii, 1990: 53)

Hemen argi eta garbi ikusten dugu, sortzen duguna adierazi nahi dugunarekin lotuta dagoela, hala ere, kontuan izan behar dugu, nahiz eta aipamen honetan artearekin edo esparru artistikoarekin lotu, hau arlo guztietara aplikatzen dela. Esan bezala, adierazteko hainbat modu daudelako eta Vigorskii-ren aipamenean, eskola gehienetan gertatzen dena agerian gelditzen delako. Ikasleei dena idatziz adieraztea eskatzen zaie, baina askotan errazagoa da haientzat beste modu batean gauzak adieraztea, eta hau hezkuntzan aintzat hartu beharko litzateke.

Bestetik, aipatzekoa da, sormena gure garapen pertsonalean asko laguntzen duela eta beraz, guztiok daukagun gaitasun beharrezkoa dela, errealizazio pertsonala lortzeko eta gure bizitzari zentzua emateko. Hau gogoan hartuta, hezkuntzan beharrezkoa dela ikusten da, esan bezala, garapen pertsonala bultzatzen duelako, eta kognizioa ere. Baina hau lortu ahal izateko, hezkuntza ikasleen garapen integralean zentratu beharko litzateke, horrela gizarte aldakor baterako prestatzeko eta ikasleek erronkei edo zailtasunei aurre egiteko estrategiak garatzeko (Fuentes eta Torbay, 2004).

### **1.3. Nola landu sormena eta adimen emozionala eskolan**

Borthwick-ek (1982) aipatzen duen moduan, “La educación tiene el doble poder de cultivar o de ahogar la creatividad”. Honen aurrean, ikasleen zaletasunak, gaitasunak eta adierazpen propioak ahalbidetu behar dira, berekoikeria bultzatu gabe. Hau garatzeko, pentsamendu dibergentearen garapena egin behar da. Horrela, aurrerago esan bezala, arazo baten aurrean hainbat erantzun desberdin emateko aukera azaltzen zaie, bakoitzak bere esperientzietan eta izaeran oinarritutako erantzun bat emanaz.

Gardnerrek (1995) aipatzen duen moduan, eskolen helburu nagusia, adimenak garatzea eta ikasleen bokazioak lortzen laguntzea izan beharko litzateke. Ikasleak bultzatu, haien zaletasunei egokitutako adimena garatzeko. Modu honetan bultzatzen bazaie, ikasleak ikaskuntza prozesuan inplikatuago sentituko dira.

Beraz, hezkuntzaren helburu nagusia, ikasleen trebetasunei egokitutako pedagogia bat bilatzea izan beharko litzateke. Edukiak, modu praktikoan lantzea ikasleen testuinguruarekin bat eginez komenigarria da, beste hainbat gauzen artean, sormena garatzen laguntzeko (Rowe, 2004). Honetarako, beharrezkoa da baldintza batzuk sortzea, ikasleak haien intereseko gauzak islatzen dituen produktu bakarrak garatu ahal izateko. Bakoitzak ikusten duen errealitatea adierazteko aukera eman behar zaie eta askatasuna bakoitzak bere modura egiteko (Dabdoud, 2004).

Nahiz eta aipatutako guztia sormenarekin lotuta egon, kontuan izan behar da ez dugula bakarrik sormena eskulan edo jarduera artistikoekin lotu behar. Sormena, egunerokotasunean egiten ditugun ekintzetan garatzen da, bai eskola barruan zein kanpoan, baita modu inkontzientean lantzen denean ere. Honek eragiten du, gure gaitasunak topera garatzea (komunikazioa, harremanak, elkarbizitza, adierazpen askatasuna, munduaren azterketa eta sentsibilitatearen aberastasuna).

Borthwick-ek (1982) dioten moduan, sormenean hezteak, esperimentazioa, iritziak ematea, eztabaidatzea, okertzea, berregitea, auto-ikastea, etab. suposatzen du. Sormen gaitasuna, egiten ikasten da. Eta honelako hezkuntza bat emateko, beharrezkoa da giroa aproposa izatea.

Ekintza sortzaileak eskoletan sartzeak, umeen izaeraren garapenean laguntzen du eta irakasleen praktika aldatzen. Irakasle-ikasle arteko hartu-emana berdintasunean oinarritzea lortu behar da, irakasle ulerkor eta adeitsuekin. Horrela, lanerako giro aproposena sortzen da eta honi esker ikasleari aukera ematen zaio bere esperientzietan oinarritzeko eta horrela identifikatuta sentitzeko. Eskola, ikaslea adierazi ahal den lekua izango litzateke.

Sormenarekin lotuta dagoen adimen emozionala beste egoera batean aurkitzen dugu. Nahiz eta honen garrantziarekiko kontzientzia izan, oraindik hezkuntzaren erronka nagusienetarikoa bat izaten jarraitzen du. Palomerok (2009) aipatzen duenaren arabera, arazoa ez dago irakasleengan, baizik eta jasotzen duten formakuntzan. Aditu honen arabera, lehenengo irakasleak prestatu behar dira, gero ikasleei transmititu ahal izateko. Ikuspuntu humanistatik abiatuz, irakasleak izan beharko lukeen zenbait jarrera azpimarratzen ditu. Gainera, ikuspegi honetan azpimarratzen dena gogorarazten digu: “poner énfasis en el desarrollo de las fortalezas de los individuos y de los grupos, más que en señalar sus carencias y defectos” (Palomero, 2009: 148). Modu honetan, hezten gauden pertsonen baliabide propioak hobetzen ditugu, bakoitzaren helburuak lortzeko eta edozein egoeraren aurrean arrakastaz aritzeko.

Beraz, honetara heltzeko irakasleek izan beharko luketen jarrerak proposatzen ditu, aipatutako ikuspegi humanistikoaren arabera, haiek izango baitira ikasketa prozesuan gehien eragiten dutenak:

- **DISPOSIZIO FENOMENOLOGIKOA**

Bakoitzaren kognizio-emozio eta jokabideak hautemateko gaitasuna garatzea izango litzateke. Ikuspegi humanistaren oinarrietako bat da, eta honen arabera, gure ekintzez eta sentimenduez kontziente izatean datza, hau da, hauetaz konturatzea eta gai izatea hauek zintzotasunez deskribatzeko. Horrela, bakoitzak bizitzen dituen esperientziak identifikatu eta hauetaz arduratzea lortzen da. Autokontzientziarekin lotura zuzena duen aspektu hau oso garrantzitsua da, askotan irakasleek ez dutelako haien sentimenduez hausnartzen eta honek ikasle-irakasle arteko harremanean eragin handia duelako.

Klasera haserre datorren irakasle baten adibidea hartzen badugu, ikusiko dugu ikasleek bere haserre nabaritutako dutela eta haien erantzunak honen ondorioz baldintzatuta egongo direla. Hau

ekiditeko, beharrezkoa da sentimendu edo emozioez kontzientzia hartzea, klaseko giroa ahalik eta hobereana izateko.

Gainera, honek enpatia garatzea laguntzen du, ikasleen sentimenduez konturatzen eta hautematen laguntzen.

- AUTONOMIA

Irakasleak, bai eskolan zein gela barruan, bere jokabidea gidatzeko duen gaitasuna izango litzateke. Askotan irakasleen artean, ikasleak eramateko zailtasunak aurkitzen dira eta zailtasun hauen aurrean, errua hezkuntza sistemari, gizarteari edo ikasleei botatzen zaie.

Irakasleen autonomia garatu behar dela esatean, dituen zailtasun edo oztopoez konturatzea eta hauei irtenbide bat topatzea esan nahi dugu. Irakasleak gai izan behar dira arazoa aztertu eta haiek bakarrik, hausnartuz, erantzun bat emateko. Ikuspegi honen arabera, beste pertsona batzuen arazoan konponketan lagundu dezakezu, baina ezin duzu bere arazoa konpondu.

- ARDURA

Autonomia eta autokontzientziarekin lotura zuzena duela esan daiteke. Ardura, irakasleak bere sentimendu, pentsamendu eta jokabideez erantzuteko gaitasuna izango litzateke. Bakoitzak bere esperientziakiko ardura izatea beharrezkoa da, askotan ardura besteengan uzten dugulako, gurea dela onartu beharrean. Adibide argi moduan, hurrengo esaldia daukagu, gaur egungo irakasleetan asko entzuten dena: “ikasle honek ez du ezer egiten”, “gaur egungo ikasleekin ezinezkoa da ezer egitea”... Errua edo ardura beste bateri utzi beharrean, irakasleak honi erantzun bat ematea bilatu behar du.

- IRIZPIDE INDEPENDENTZIA

Ikuspegi humanistak, irakasleen desberdintasun propioetan sinesten du. Bakoitzak bere identitate profesionala eraiki behar du izaera, esperientzia eta formakuntzaren arabera. Modu honetan bakoitzak bere ahulguneak eta indarguneak ezagutu behar ditu eta hauek indartu edo ez.

Bakoitzak bere mugak, emozioak, beharrianak, etab. ezagutu behar ditu. Irakaslearen itxura orojakilea alde batera utzi behar da eta ez da beldurrik izan behar laguntza eskatzeko edo zerbait ez dakizula onartzeko.

- KOOPERAZIORAKO DISPOSIZIOA

Aipatutako irizpide independentzia edo besteengandik desberdintzeko gaitasunak ez dira berekoikeriaren sinonimoak. Alderantziz, modu honetan zenbat eta pertsonak ezberdinago aitortu,

gero eta gehiago sentitzen gara taldearen parte. Horrela ematen baitira harreman zintzoago eta onuragarriagoak.

Gainera, irakaslea taldearen parte sentituko da balio eta helburu komunak bilatzen dituztelako, baina aldi berean, adierazpen askatasuna, bakoitzaren esperientziak, iritziak, etab. partekatuz.

## 2. Metodologia

Orain arte aurkeztutako teoriak ezagutu ostean, beharrezkoa da gaur egungo eskolen errealitatera hurbiltzea, hauen egoera eta ikuspegiak ezagutzeko. Ideia hauetan sakontzeko, leku ezberdinetara joan naiz hango irakasleei eta beste aditu batzuei elkarrizketak egiteko eta sormena eta hezkuntza emozionalaren inguruan nuen informazioa elkarrizketetatik ateratakoarekin osatzeko. Horregatik esan ahal dut lan hau ikuspegi kualitatibo batetik bideratu dela, eta ikuspegi honen barruan elkarrizketak erabili direla informazioa jasotzeko. Izan ere, elkarrizketaren bidez pertsonen perzeptzioak, sinesmenak, iritziak, arazoak eta jarrerak jaso ahal ditugulako eta beraz, oso baliagarriak dira egoerak hurbiletik ezagutzeko (Vargas, 2012).

Elkarrizketaren prestakuntzarako, Buendía, Colás eta Hernández (1997) eta Vargas (2012) publikatutako bibliografian erraztutako argibideetan oinarritu naiz. Horrela, hurrengo hauek izan dira galderak egiteko sailkatutako kategoriak:

- Ikasleen beharrak, trebetasunak eta interesak kontuan izateko egoten diren arazoak isladatzea/ezagutzea.
- Gardnerren Adimen Anitzen teoria kontuan hartzen den ikustea eta praktikan jartzeko dauden aukerak jakitea.
- Adimen emozionalaren garrantzia eta eskolaren planifikazioan daukan lekua ezagutzea
- Sormenak hezkuntzan duen lekua ezagutzea.

(Ikusi 1. eranskina)

Aukeratutako zentzoei dagokionez, desberdintasun asko aurkitu ahal dira, beraz banan-banan bakoitzaren ezaugarriak ezagutuko ditugu testuinguruan kokatu ahal izateko (Ikusi 2. eranskina).

1. Lehenik eta behin, Practicum III egin dudana ikastolan bertan egitea pentsatu dut. Horrela, arlo honetan eskola berritzaile baten esperientzia ezagutzeko aukera izan dut. Zentro hau, kooperatiba bat da 1.830 ikaslez eta 118 irakaslez osatuta. Datuetan erreparatuz esan dezakegu zentro handia

dela. Eta honen errealitatera gehiago hurbiltzeko, ziklo bakoitzeko irakasle bati elkarrizketa egitea aproposena iruditu zait. Zentroko irakasle guztien artean, hiru aukeratu ditut, normalean sormena eta adimen emozionalarekin gehien lotzen diren irakasgaien arduradunak zirelako, plastika eta musika hain zuzen ere. Modu honetan, banekien kontzeptu hauekiko ezagutzak zituztela edo gutxienez hauei buruzko oinarritzko ezagutzak.

Hala ere, esan daiteke hiru irakasleek maila ezberdinean interpretatzen zituztela honelako kontzeptuak. Lehenengo zikloan, emozioen lanketari garrantzi handiagoa ematen zaio, azken finean ia elkarrizketatutako guztiek esan bezala, ikasketaren oinarria delako. Zenbat eta emozioak gehiago ezagutu, hauetaz kontziente izan, geure burua ezagutu... gero eta harreman hobekak mantenduko ditugu. Honek, gelako giroan eragin handia dauka eta azken finean ikasleak eroso sentitzen direnean gehiago eta gogo gehiagoz ikasiko dute. Gainera, bizitzarako oinarritzko zerbait dela denek utzi dute argi.

Sormenarekin antzeko zerbait gertatu da, guztiok honen garrantzia azpimarratu dute eta uneoro egiten dugun zerbait dela argitu dute. Hala ere, esan beharra dago, zentro honetan behintzat, ez diotela denbora luzerik uzten honelako gaitasunak gela barruan zuzenean lantzeko.

Kasu honetan, bazegoen sormena hezkuntzako arlo guztietara eramango lukeen irakasle bat. Irakasle honek, zeukan denbora libre guztia honetarako erabiltzen zuen. Adibide bat jartzeko, gizarte zientzietako gaiekin lotutako paisaiak, eszenak, irudiak, figurak, etab. sortzen zituen kurtso osoko pasabideak apaintzeko eta horrela azalpenak beste modu batez emateko. Honelako gauzei esker, ikasleek modu positibo batean erantzuten zuten, motibazio gehiago izanik gehiago interesatzen zitzaielako eta honen ondorioz, gehiago ikasten zutelako.

Argi dago, irakasle horrek metodologiaren barruan, sormena bultzatzen duela eta azkenean honekin ikasleen inplikazioa lortzen duela eta ikasketa prozesua aurrera eramaten duela modu eraginkorrago batean. Honek daukan zailtasun nabariena, irakasle gehienek edo zentroen interes falta eta askotan baliabide falta izaten da, baina argi dago egin ahal dela.

2. Bestetik, sormena eta adimen emozionaleko tailerra eskaintzen duen psikologia-zentro batekin harremanetan jarri naiz. Psikologia-zentro honetan, psikologoak eta pedagogoak elkarlanean aritzen dira, bertan, edozein adinera zuzendutako tailerrak antolatzen. Hauen helburu nagusia, garapen pertsonalean laguntzea da. Kasu honetan, aipatutako tailer hau, planteatutako gaiarekin lotura zuzena duenez, tailer hau aurrera eramaten zuen adituarekin hitz egiteko aukera izan dut eta horrela, beste ikuspuntu guztiz ezberdin bat ezagutzeko.



Hemen ere, sormena eta adimen emozionalaren garrantziaz eta honen lanketak dakartzan onurez kontziente dira. Horregatik aurrerago aipatutako tailerra proposatu dute. Adu honak azpimarratu zuen moduan, azken finean, garrantzitsuena gurasoei jakinaraztea da, askotan ez dakitelako honelako gaitasunen berri. Baina umeen garapenean, honelako gaitasunak lantzea duen garrantziaz konturatzen direnean, beste modu batean ikusten dute.

Tailer hauetan, jolasen bitartez lantzen dute sormena. Jolas hauek normalean gai baten ingurukoak izaten dira, bete beharreko zenbait arauekin, baina joko irekiak izaten dira. Honek esan nahi du, partaideek askatasuna dutela haien modura jokoak interpretatu eta honen aurrean jokatzeko, arauak betetzen dituzten bitartean. Hala ere, tailerraren arduradunak argi utzi zidan moduan, esan beharra dago hausnarketara bultzatzen gaituen jokoak direla, eta beraz, dinamika guztiak amaitzean, taldean sentitutakoa, bizitako esperientzia, emozioak, etab. partekatzen dutela. Modu honetan, garapen pertsonalerako hain funtsezkoak diren bi elementu hauek lantzen dituzte.

3. Azkenik, Hezkuntza Sortzailean oinarritzen diren bi espazio ezagutu ditut. Espazio hauetan Arno Stern-en Hezkuntza Sortzailea praktikan jartzen dute. Stern-en printzipioei jarraituz eta baldintza batzuk sortuz, hezkuntza modu ezberdina ahalbidetzen dute. Ikasleen interesetatik abiatzen dira, beraz, momentu bakoitzean ikasi nahi dutena haien eskura jartzen saiatzen dira. Modu honetan, ikasleen inplikazioa eta parte-hartze aktiboa lortzen dute, ikasleak haien hezkuntzaren protagonistak eta arduradunak direlarik. Hemen, hezitzaileak “zerbitzariaren” papera betetzen du, beti ikaslea baino pausu bat atzerago egonez. Horrela, ikasle bakoitzari, ikasteko behar duen denbora eta modua errespetatzen zaio, ahal den neurrian honetan laguntzeko eta haien ezagutza garatzeko baliabide beharrezkoak emanez.

Nahiz eta hiru esparru guztiz ezberdinak izan, guztietan sormenaren eta adimen emozionalaren garrantzia azpimarratzen dute. Honez gain esan daiteke aipatutako zentroaren egoera, gaur egungo zentro gehienek isla besterik ez dela. Eta honen arabera, argi ikusten dela orokorrean zentroetan ez dagoela lekurik honelako gaitasunak garatzeko. Ez hori bakarrik, askotan sormena edo adimen emozionala lantzen dutela uste da baina benetan sormenari mugak jarriz eta adimen emozionala gatazkak bideratzeko bakarrik landuz.

Ildo honetatik jarraituz, ez da arretarik jartzen ikasleen interes eta behar pertsonaletan, azken finean irakasgaiak zehaztuta daudelako eta aipatu moduan mugak jartzen direlako. Beraz, honekin lotuta dagoen ikasteko modu ezberdinak (Adimen Anitzen teoria) azken finean ez dira errespetatzen, guztiok helburu berdinean lortu behar dituztelako, epe berdinean eta modu berdinean.

Hala ere, aipatzekoa da nahiz eta leku gutxi egon, badaudela ikasleen interes eta beharretatik askatasunez lan egiten saiatzen direnak ere. Horrela, sormena eta ondorioz, adimen emozionala martxan jartzen duten espazio eta zentroak hain zuzen ere. Zoritxarrez, toki hauek, hezkuntzan pisu gutxiago dutela esan daiteke.

Hau ikusita, elkarrizketetatik atera ditudan ondorioetan eta ezagututakoan oinarrituta, sormena eta adimen emozionala ahalbideratzeko aspektu garrantzitsuak aurkeztuko ditut.

### **3. Lanaren garapena eta emaitzak**

#### **3.1. Espazio pertsonala, indibidualtasuna eta autonomia**

Arno Stern-en Hezkuntza Sortzailea bere esperientziatik abiatzen da (ikusi 3. eranskina). Honen arabera, umeak askatasun osoz uzteak inolako epaiketarik egin gabe eta ezer galdetu ezta gairik proposatu gabe uztea onuragarria izan daiteke. Helduak jarrera hau mantentzeaz gain, espazioaren dispozizioa deskribatu zuen. Hezkuntza mota honetan, espazio komuna eta pertsonala dauzkagu. Normalean, elkarbanatu behar den espazioa gelaren erdian egoten da, espazio pertsonala gelaren ingurutik kokatzen den bitartean. Guztientzako beharrezkoa den material guztia, erdian kokatzen da, horregatik esaten zaio espazio komuna. Hemen, besteak kontuan hartu beharko dituzte eta arauak errespetatu behar dituzte guztiek aukera berdinak izateko. Hemen, gaitasun sozialak garatzen dira eta guztien elkarrekintzarekin, bata-bestetik ikasten dute. Bestetik, espazio pertsonala dago. Bakoitzak behar duena erabiltzen du, betiere, aipatu moduan, besteak errespetatuz. Espazio pertsonal honetan, bakoitzak nahi duena egin dezake, bere modura. Inork ez du ondo dagoen ala txarto dagoen esango. Bakoitza libre da bere kontura, interes pertsonalen arabera nahi duena adierazteko.

Adierazpen honekin jendea gai da behar duena azaltzeko, inori ezer esateko beharrik eduki gabe. Modu honetan, alde emozionala lantzen da, bakoitza bere interes, kezka, beldur, sentimendu, arduretatik abiatzen baita ateratzen zaion moduan adierazteko. Hemen, argi dago bakoitza desberdina dela eta bakarra, eta hori mantenduz, partaide guztien artean sortzen diren harremanak oso aberasgarriak dira. Beraz, pertsonalki garatzeaz gain, beste mota bateko ikaskuntza ahalbidetzen du.

Modu honetan lan egiteak, Robinson-ek hainbeste aldiz aipatzen duen *Elementua* aurkitzen laguntzen digu, aldi berean Adimen Anitzak errespetatuz eta ikasle bakoitzari egokitutako

hezkuntza eskainiz. Baina guzti honetarako, beharrezkoa da aipatutako baldintza batzuk betetzea, gaur egungo hezkuntza sistemak ez duelako honelako balioak garatzen laguntzen.

Aipatu den moduan, Hezkuntza Sortzailea artearekin zer ikusia duten arloetan erabiltzen hasi zen, baina denborarekin, hemen erabiltzen ziren teknikak beste esparru guztiz ezberdinetara eramatea lortu da.

Begirada hezkuntzan jartzen badugu, hainbat metodo edo teknika ezberdin erabili ditzakegu irakasgai ezberdinetan honelako proposamenak aplikatu ahal izateko. Beraz, hurrengo hauetan zenbait ideia azalduko dira arloak modu batean ala bestean eramateko, Hezkuntza Sortzailearen printzipioak oinarritzat hartuta.

Bestetik, nabarmendu beharra dago ikasleen interesak bigarren planu batean gelditzen direla. Normalean, ikasleei ez zaie inoiz aukera ematen benetan ikasi nahi dutenaren inguruan informatzeko edo ikasteko. Aurrerago aipatutako *Elementua* (Robinson, 2009) aurkitzean, bizitza guztiz aldatu ahal zaigu, benetan gure interes eta gustuko gauzetan ikasten gaudelako, eta beraz, ondo sentiarazten gaituelako.

Eskolak denbora eskaini beharko luke ikasleen beharrian honi erantzuteko. Komenigarria izango litzateke eskola barruan, denbora ahalbidetzea ikasleen interes eta bokazioak garatzeko eta lantzeko. Hezkuntzak behar duen erreformaren barruan, hau kontuan hartu beharko litzateke. “La clave de la transformación no es estandarizar la educación sino personalizarla: descubrir los talentos individuales de cada niño, colocar a los estudiantes en un entorno en el que quieran aprender y puedan descubrir de forma natural sus verdaderas pasiones” (Robinson, 2009: 311).

Honen arabera, esan daiteke ikasleen interesguneetan arreta gehiago jarri behar dela, eta naturalki trebeak diren arloetan ikasleak bultzatu honetan garatu ahal izateko. Eskolak, beharbada programatik eta eman beharreko edukietatik aldentzen den momentu bat utzi behar die ikasleei, benetan “eurena” den “zerbait” hori garatzeko.

Argi dago, umeetan oso ohikoa dela gustuz aldatzen joatea edo albokoak egin duenaz kontagiatzea. Hau ez da batere kaltegarria, frogatuz ikasten dutelako. Bakoitzak berea aurkitzeko, asko frogatu behar da, bere intereseko gai asko ezagutu behar ditu eta askotan okertu beharko da, baina hau, ikasketa prozesuaren parte dela esan dezakegu.

### 3.2. Ikerkuntza, azterketa eta esplorazioaren garrantzia

Irakasgai askotan erabili daitezkeen teknika hauei esker, ikasleen inplikazioa lortu dezakegu eta haien ikaskuntza prozesuarekiko pertsona arduradunak heztea ere. Hemen, oso garrantzitsua da irakasleen prestakuntza, izan ere gaian sakontzeko beharrezkoak diren baliabideak eskura jarri behar dituelako edo beharrezkoa izatekotan, baliabide aproposenak bilatu ikasleen eskariak asetzeko.

Hemen garrantzitsua da askatasuna ematea eta ez mugatzea. Askotan, irakasleak prestatutakoaren arabera ikerkuntza baldintzatzen dute, baina ideia honetatik ateratzea komeni da. Horrela, ikasleek haien interesen arabera gauzak ikertuko dituzte, gero guztientzako baliagarriak izan ahal direnak. Adibide bat jartzeko, inguruneko irakasgaien landareei buruzko gaia ematean, ikasleek landareei buruzko edozer gauza bilatzeko aukera izango dute. Izan daiteke, ikasle batzuk landareen itxuran arreta jartzea, beste batzuk honen elikadura, besteak landare motetan, sendabelarretan, etab. bakoitzak, gaiaren barruan hainbat gauza aztertu daitezke eta ikasleek gehien interesatzen zaien gauzez informazioa bilatzeko eta ikasteko aukera izan ahal dute. Gero ateratako guztia komunean jarri ahal da, gelan ideia desberdinak partekatzeko eta ikaskideen ikerkuntzetatik ikasteko.

Mota honetako ariketak hainbat arlotara eraman ahal dira: adibidean argi gelditu den moduan, ingurumenean ondo aplikatu daiteke, baina literaturan, artean, musikan, matematiketan, eta beste arloetan ere martxan jarri dezakegu.

### 3.3. Adierazpenerako lekua

Frogatuta dago, honelako ekintzak praktikan jartzea itzelezko onurak ekartzen dituztela, ez bakarrik emozionalki, baizik eta kognitiboki ere. Bisquerrak (2014) antzerkia proposatu zuen *bullying*-a hezkuntzan bideratzeko, baina esan beharra dago, edozein arlotan aplikatu daitekeela.

Irakasgaiak bizitza errealarekin lotzeko, antzerkia oso baliagarria izan daiteke. Horrela matematikako problemak edo historiako gertaerak irudikatuz, parte-hartze aktiboarekin ikasten da. Esan bezala, edozein gairekin lotu ahal den zerbait da eta gainera modu kooperatiboan lan egiteko aukera ematen du.

Honelako jardueretan, ikasleen trebetasunak eta gustuak aprobetxatu ahal dira rol ezberdinak bete ahal izateko eta antzerkia posible egiteko. Batzuk *atrezzo*-a prestatu dezakete, besteek gidoia, besteak antzeztu, grabatu, egoerak prestatu, bideoak egin, argazkiak atera, etab. Hemen ere taldeak sortu daitezke interesen arabera, "talde sortzaileak" osatuz. Horrela, interes antzekoa

duten ikasleen artean zerbait ikaragarria sortu dezakete, bakarka inoiz ez luketena lortuko. Honek koordinazioa eta antolakuntza suposatzen du.

Kasu honetan, antzerkian mugimendua, musika, marrazketa eta eskultura aldi berean erabili daitezke, aipatutako *atrezzo*-a sortzeko, antzezlanean zehar musikarekin egoerak sortzeko, etab. Baina aipatzekoa da musika, mugimendua, marrazketa, eskultura, argazkigintza... beste arlo batzuk lantzeko ere erabili daitezkeela.

Ikasle askok, errazago ikasten dute musikaren bitartez. Honi erantzun bat emateko, musika baliabide moduan erabili daiteke hizkuntzak ikasteko (hiztegia, fonetika, gramatika...), beste arloetako kontzeptuak errazago gogoratzeko, kulturak ezagutzeko, gizarteko garaiak desberdintzeko, etab.

Bestetik, marrazketa, eskultura, argazkigintza... erabili daiteke, ez bakarrik auto-adierazteko, baizik eta arlo desberdinetan erabiliz baliabideak sortzeko edo gai desberdinak lantzeko asmoarekin. Adibide moduan, matematikako geometriaren kasua hartu dezakegu, eskulturaren bidez modu errazean landu daitekeena. Edo gizarteko arloetan, eszenak eraiki daitezke ikasleak egoera horiek hurbiletik bizi ahal izateko. Adibidez, egipto garaia piramideen, sarkofagoen, momien... eskulanak eginez ondo islatu daiteke. Edo historiaurrea kobazulo bat eraikiz eta garai hartan egiten ziren tresnak sortuz.

Ariketa hauei esker, hezkuntza pertsonalizatzea lortu dezakegu, bakoitzaren lan egiteko modua eta interesak errespetatuz ikasten baita. Ikasleei gustatzen zaien edozer gauza jarraitzeko animatzen zaie eta honek, haien konfiantzan, autoestimuan, motibazioan, autonomian eta beste hainbat aspektuetan eragin positiboa izango du. Honez gain, ikaskideen artean ere bakoitzaren berezitasunak eta interesak ezagutzuz, pertsona bakoitza bakarra dela ikasten dute eta ezberdintasunak baloratzen ere ikasteko aukera ematen zaie. Bestetik, galdera edo arazo baten aurrean erantzun bat baino gehiago posible direla argi uzten da honelako ekintzak eginez, aldi berean guztiak baliagarriak eta aberasgarriak direla azpimarratuz.

### **3.4. Irakaslearen papera**

Hezkuntza Sortzailea eta proposatutako ekintza guzti hauek posible izateko, funtsezkoa da irakaslearen papera argi izatea. Irakaslea beti egon beharko da ikaslearen atzetik, hau da, ikaslearen esanetara dagoen zerbitzari baten papera bete beharko du. Horrela, ikasleak eskatzen duena beteko du, ikasle horren ikasketan laguntzeko.

Irakasleak ez dio ikasleari bere ikaskuntza propioa “lapurtuko” honetan lagunduko du, behar izatekotan eta ikaslearen ikasketa prozesuan dauden oztopo materialez arduratuko da. Horrela, ikasleari denbora gehiago emango dio benetan bere lanean zentratzeko. Beraz, irakaslea ez du ezer esango ikaslearen ikasketa bideratzeko. Ikaslearekin batera, ikertzaile bat izango da benetan interesatzen zaizkion gauzetan eta sinesten duten gauzetan esploratzen laguntzen duena.

Modu honetan, irakasleak haien interesetatik abiatzea lortzen dugu. Gaiaren barruan, benetan gustatzen zaien gauzetatik abiatzea. Ikasketa honetan, haiek dira erabakitzen dutenak eta oztopo bat aurkitzen dutenean, sormena erabiliz aurrera egiteko irtenbidea bilatuko dutenak. Horrela, ikasketa autonomiaz ematen da, haien ikaskideengandik ere ikasten duten bitartean, esan bezala kolektiboki ere lan egiten dutelako.

Guzti honekin, bakoitzaren erritmoa eta ikasteko modua errespetatzea errazago egiten da, pertsona bakoitza guztiz ezberdina baita eta beraz, tratu ezberdina merezi duelako. Horregatik, ebaluatzerako orduan, prozesua izango da kontuan hartuko dena eta ez bakarrik amaierako azterketa bat. Honekin, ikaslearen ikaskuntza bilatzen da eta ez ikaslearen ikaskuntza azterketa bat gainditzeko.

## **4. Ondorioak**

Orain arte egindako ikerketatik eta aztertutako teoria guztietatik hurrengo hau ondorioztatu ahal dugula esan dezakegu:

### **4.1. Sormena eta adimen emozionalak duen garrantziaz kontzientzia hartzea**

Ikusitakoaren arabera, guztiek honen garrantzia azpimarratzen dute, baina aldi berean ez dute gauza handirik egiten hau bultzatzeko. Beti bezala, gure hezkuntzan sormena artearekin lotzen da. Horrela aspalditik datorren irakasgaien hierarkia mantenduz, betiko moduan matematikak eta hizkuntzak piramide horren tontorrean kokatzen direlarik.

Argi dago, pixkana-pixkana honen ezagutza zabaltzen doala, baina beharrezkoa da eskoletan irakaslearen zein gurasoen kontzientzia piztea. Honetaz informatzea, funtsezkoa delako ez bakarrik ikaslearen ikaskuntza prozesurako, baizik eta bizitza osorako.

Ikusi bezala, Hezkuntza Sortzaileak zehaztutako baldintzak kontuan hartzea komenigarria izango litzateke, gela barruan zein beste motatako esparruetan aplikatzeko. Azken finean Hezkuntza

Sortzailearen helburua ez delako artistak diren ikasleak sortzea, baizik eta ekintza sortzaileen bitartez, pertsonen gaitasun edo trebeziak garatzeko aukera ematea, pertsona ororen bizitzaren oinarria izanik.

## 4.2. Gure zaletasunei lekua uztearen garrantzia

Lan honetan zehar askotan aipatzen da Robinson-ek (2009) sortutako *Elementuaren* kontzeptua. Harrizkoa da nola benetan zentzuzkoa dirudien gauza bati, ez zaion inolako arretarik jartzen. Hezkuntzan, badakizkigu landu beharko ditugun irakasgai, gai guztien izenak, baina inork beste zerbaitetan interesa badauka? Non gelditzen da arlo hori?

Gure hezkuntzan ez dago lekurik honelako gauzak lantzeko, irakasgien barruan ere gure zaletasunak sartu daitezke, baina alderantziz, itxiak dira. Ikasleek eskola orduetatik kanpo bilatu beharko dute benetan gustatzen zaiena, baina oster, ia egunaren denbora gehiena eskola barruan ematen dute. Gainera, askotan etxerako lanak egiten ere denbora ematen dute. Beraz, noiz daukate denbora haien intereseko gauzak bilatzeko eta hauetan hezteko?

Guztiak esaten dute unibertsitatera heltzean, "nahi duzuna egin behar duzu, benetan gustuko duzuna". Baina dirudenez, azken momentuan erabaki behar dugun gauza bat da. Nire ustez, eta beste hainbat esparruetan egiten dena ezagutu ostean, honi denbora gehiago utzi beharko litzaioke.

Azken finean, ikasleek horretan ere ikasten jarraituko lukete, eta beharbada, zeharkako moduan beste hainbat eduki landuko lituzkete. Gainera, honek edozein pertsona motibatuko luke eta ondorioz gogo gehiagorekin lan egitera eraman.

Baina guzti honetarako, ikasle-irakasle harremana aldatu beharko litzateke. Eskainitako metodologiaren ezaugarrien artean aipatzen den moduan eta Arno Stern-ek (2008) sortutako Hezkuntza Sortzailean egiten den moduan, irakasleak honetan lagundu beharko luke, ikasleari askatasuna eman bere kabuz ikasi ahal izateko eta ikasketa ahalik eta aberasgarriena izan dadin baldintzak eskaini.

Sormena eta adimen emozionalean oinarritutako ikasketaren bidez, ikasleak haien ikaskuntzaren protagonistak eta arduradunak dira. Aipatutako askatasuna ahalbidetuz, ikasleek bi aspektu hauek garatzeko aukera izango lukete.

Guzti honegatik, etorkizunera begira, beharrezkoa ikusten dut zaletasunetan oinarritutako hezkuntza nolakoa izango litzatekeen ikertzea eta hau posible egiteko zentroetara zabaltzea.

## 5. Erreferentzia bibliografikoak

- Altuna Ganboa, J. M. eta Arretxe Dorronso, I. (2008). *Ikaskuntza emozionala eta soziala*. Gipuzkoa: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Bisquerra, R. (2014). *Prevención del acoso escolar con educación emocional: con la obra de teatro Postdata*. Bilbao: Desclée.
- Borthwick, G. (1982). *Hacia una educación creativa*. Madrid: Fundamentos.
- Buendía, L., Colás, P. eta Hernández, F. (1997). *Métodos de Investigación en Psicopedagogía*. Madrid: McGraw Hill.
- Canda Moreno, F. (2000). *Diccionario de pedagogía y psicología*. Madrid: Brosmac.
- Dabdoub Alvarado, L. (2004). Los asesinos de la creatividad en la escuela. La creatividad en el aula: ¿una especie en extinción?. En Ganem Alarcón, P. (Ed.), *Escuelas que matan I: Las partes enfermas de las instituciones educativas* (pp. 109-118). México: Limusa.
- Fuentes Ramos, C. R. eta Torbay Betancor, A. (2004). Desarrollar la creatividad desde los contextos educativos: un marco de reflexión sobre la mejora socio-personal. *REICE- Revista Electrónica Iberoamericana sobre Calidad, Eficacia y Cambio en Educación*, 2(1).
- Gardner, H. (1995). *Inteligencias Múltiples*. Barcelona: Paidós.
- Giráldez Hayes, A. (2009). Reflexiones en torno al lugar de las artes en la Educación Infantil. *CEE Participación Educativa*, 100-109.
- Goleman, D. (1996). *Inteligencia Emocional*. Barcelona: Kairós
- Guilford, J. P. (1983). *Creatividad y educación*. Barcelona: Paidós.
- Iglesias Casal, I. (1999). La creatividad en el proceso de enseñanza-aprendizaje del ELE: Caracterización y aplicaciones. *Centro Virtual Cervantes, Actas X*, 942-954.
- Isaksen, S. G., Dorval, K. B. eta Treffinger, D. J. (2000). *Creative approaches to problem solving*. Dudaque: Kendall/Hunt.
- López F. Cao, M.A. (2008). Cognición y emoción: el derecho a la experiencia a través del arte. *Pulso*, 31, 221-232.
- Malaguzzi, L. (2005). *Los cien lenguajes de la infancia*. Barcelona: Asociación de Maestros Rosa Sensat.



Mauco, G. (1964). *Educación de la sensibilidad en el niño*. Avila: Aguilar.

Palomero Fernández, P. (2009). Desarrollo de la competencia social y emocional del profesorado: una aproximación desde la psicología humanista. *REIFOP*, 12 (2), 145-153.

Robinson, K. (2009). *El Elemento (The Element): Descubrir tu pasión lo cambia todo*. Barcelona: Grijalbo.

Robinson, K. (8 de enero 2012). Todos tenemos la capacidad de ser creativos. En Punset, E. (entrevistador). RTVE: Redes. [Archivo de video]. Recuperado de: <http://www.rtve.es/television/20110327/todos-tenemos-capacidad-ser-creativos/420223.shtml>

Rowe, A. J. (2004). *Creative Intelligence: Discovering the Innovative Potential in Ourselves and Others*. Upper Saddle River: Financial Times/Prentice Hall.

Stern, A. (2008). *Arno Stern: del dibujo infantil a la semiología de la expresión*. Valencia: Carena.

Vargas, I. (2012). La entrevista en la investigación cualitativa: nuevas tendencias y retos. *Calidad en la Educación Superior*, Vol 3, (1), 119-139.

Vigotskii, L. S. (1990). *La imaginación y el arte de la infancia*. Madrid: AKAL